

AMOREBIETA-ETXANOKO AMETX ERAKUNDE AUTONOMOKO ERDI MAILAKO EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRI BEREZIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da lehiaketa-oposizio libre bidez Amorebieta-Etxanoko Ametx erakunde autonomoko funtzionarioen plantilako euskara teknikari lanpostu bat hornitzea. Eskala: Administrazio Berezia; Azpieskala: Erdi mailako teknikaria, Sailkapen-taldea: B; derrigorrezko IV. hizkuntza-eskakizuna; Maila: 24.

Bigarrena.- Izangaien betekizun bereziak

- a) Unibertsitateko erdi-mailako titulua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan berau lortzeko moduan egotea.
- b) Hautaketa prozesuaren barruan, IV. Hizkuntza Eskakizuna edo apirilaren 8ko data duen eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoa den 64/2008 EDren arabera parekoa egiaztatzea. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzerik izan ez duten izangaiak ez gai izango dira, eta hautaketa prozesutik ate geratuko dira.
- c) Hautaketa prozesuaren barruan honako moduluen IT txartela egiaztatzea: “Windows XP”, “Microsoft Word 2003 (Aurreratua)” edo “Microsoft Word XP (Aurreratua)” eta “Microsoft Excel 2003 (Oinarritzkoa)” edo “Microsoft Excel XP (Oinarritzkoa)”.

Hirugarrena.- IV. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeko proba

Ariketa bakoitza egiteko, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Hala denean, behar den ziurtagiria aurkeztu beharko da eta epaimahaiak ontzat eman.

- IV. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba: Nahitaezkoa eta baztergarria izango da hautagai guztientzat, eta euskararen IV. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko izango da. Kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

Izangaiek IV. hizkuntza eskakizunari dagozkion euskara-ezagutzak dituela egiaztatzeko probak egingo dira, eta HAEEK (IVAP) erabakiko ditu proben edukia eta egitura, bai eta probok egiteko eguna eta lekua ere.

Ez da IV. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probarik egin behar izango alde aurretik hizkuntza eskakizun hori edo apirilaren 8ko data duen eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoa den 64/2008 EDren arabera parekoa egiaztatzen edukiz gero.

Hautaketa prozesuari dagozkion probak amaitzen direnean IV. hizkuntza eskakizuna edo apirilaren 8ko data duen eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoa den 64/2008 EDren arabera parekoa egiaztatzen ez duten izangaiak **ez gai izango dira, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.**

Laugarrena.- IT txartelen egiaztatpena

Nahitaezkoa eta baztergarria izango da hautagai guztientzat.

Honako modulu hauen IT txartelak egiaztatu beharko dituzte izangaiek: “Windows XP”, “Microsoft Word 2003 (Aurreratua)” edo “Microsoft Word XP (Aurreratua)” eta “Microsoft Excel 2003 (Oinarritzkoa)” edo “Microsoft Excel XP (Oinarritzkoa)”.

Egiaztagiririk ez dituzten izangaiek oposaketaren laugarren ariketa (proba psikoteknikoak) baino lehen lortu behar dituzte, egiaztagiria eskuratzeko probak gaindituta. Honakoa da jarraitu beharreko prozedura:

1. Egiaztatze-probak egin ahal izateko, izena eman behar da KZgunea sareko zentro ofizialetako batean. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.kzgunea.net.
2. Honela egin daiteke inskripzioa:
 - 2.1. KZgunea sareko zentro ofizialetako edozeinetara joanda.
 - 2.2. Telefonoz, zenbaki hnetara deituta: 902 252595
3. Egiaztagiria ematen duen organoak ezarrita dituen arau orokorrek aginduko dute proben garapenean eta kalifikazioan.
4. Egiaztagiriak lortu ondoren, Ametx erakunde autonomoan (Zelaieta zentroa, Zelaieta parkea z/g 48340 Amorebieta-Etxano) aurkeztu beharko dira, eta oposaketaren laugarren ariketa (proba psikoteknikoak) egingo diren egunaren bezpera arteko epea izango da.

Era berean, egiaztagiri horiek eskuratuta dituztelako, lortu beharrik ez duten izangaiek Ametx erakunde autonomoan (Zelaieta zentroa, Zelaieta parkea z/g 48340 Amorebieta-Etxano) aurkeztu beharko dituzte, eta oposaketaren laugarren ariketa (proba psikoteknikoak) egingo diren egunaren bezpera arteko epea izango da horretarako.

Laugarren ariketa (proba psikoteknikoak) egin aurretik exijitutako IT txartelaren egiaztagiriak lortu ez dituzten izangaiek **ez gai izango dira, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.**

Bosgarrena.-Hautaketa prozedura

Lehiatzaileen hautaketa txanda irekian egingo da, lehiaketa-oposizio bidez. Lehenengo Oposizio Fasea egingo da.

1. OPOSIZIO FASEA

Lehenengo ariketa: Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Erantzun anitzak dituen test erako galdera-sorta erantzun beharko da, idatziz, erantzun horietako bat zuzena izanda. Galdera-sorta hori eranskin gisa gehitu den gai-zerrenda orokorraren edukian oinarrituko da. Epaimahaiak bere irizpideen arabera zehaztuko du galdera kopurua, gaizki erantzundako galderak zigortu ala ez, probaren iraupena, etab. Ariketa honi **15 puntu** emango zaizkio gehienez, eta gainditzeko gutxienez 7,5 lortu behar dira.

Bigarren ariketa: Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Teorikoa izango da. Deialdiaren eranskinetako gai espezifiketatik epaimahaiak aukeratutako bi gai garatu beharko dira idatziz.

Ariketa honi **15 puntu** emango zaizkio gehienez, eta gainditzeko gutxienez 7,5 lortu behar dira.

Hauek baloratuko dira bi ariketa horietan: prestakuntza orokorra, ideien gardentasuna eta antolaketa, gaiari buruz jakitea, idatziz azalpenak emateko erraztasuna, lehiatzailearen ekarpen pertsonala eta sintetizatze gaitasuna.

- **Hirugarren ariketa:** Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Praktikoa izango da eta kasu praktikoa bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Deialdiaren Gai Berariazkoekin eta bete behar den plazari dagozkion funtzioekin zerikusia izango dute.

Ariketa honi **15 puntu** emango zaizkio gehienez, eta gainditzeko gutxienez 7,5 lortu behar dira.

Hauek baloratuko dira ariketa honetan: arrazoitzeko gaitasuna, planteamenduaren sistematika eta ondorioak ateratzea.

—**Laugarren ariketa:** Proba psikoteknikoak. Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Hainbat proba egingo dira hautagaiak bete beharreko lanpostuaren zehaztasun teknikoei eta giza alderdiko zehaztasunei egokitzen zaizkien ikusteko.

Ariketa **gai ala ez gai** gisa kalifikatuko da, eta gainditzen ez duten hautagaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

2. LEHIAKETA FASEA

Oposizio fasea gainditzen duten pertsonak lehiaketa fasera igaroko dira. Fase horretan Epaimahaiak ondoren zehazten diren merezimenduak baloratuko ditu, betiere baldin eta Oinarri Orokorretan zehaztutakoaren arabera eskaera-orrian alegatu badira, eta agiri originalen nahiz kopia konpultsatuen bitartez egiaztatu badira.

2.1. Lan esperientzia:

Atal honetan **6 puntu** emango dira gehien jota.

- Administrazio Publikoan egindako zerbitzuak, Hizkuntza Normalizaziorako teknikariari dagokion lana eginez. Puntu 1 lanean emandako urte bakoitzeko edo 6 hilabete baino gehiagoko frakzioko. Gehienez 5 puntu emango dira.
- Enpresa pribatuetan egindako zerbitzuak, Euskara teknikari lanpostuetan. 0,5 puntu lanean emandako urte bakoitzeko edo 6 hilabete baino gehiagoko frakzioko. Gehienez 2,5 puntu emango dira.

Atal honetan ez da punturik emango EFPLren 96.1 artikuluan aurreikusita dauden behin-behineko lanpostuetan egindako zerbitzuengatik, bekengatik eta prestakuntza-praktikengatik.

2.2. Tituluak eta Prestakuntza:

Atal honetan **5 puntu** emango dira gehien jota.

Unibertsitate batek emandako graduondoko ikastaroak edo masterrak puntuatuko dira atal honetan; IVAPek, INAPEk eta gainerako Prestakuntza Zentro Ofizialek emandako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, etengabeko Prestakuntzarako Planak burutzen kolaboratzaile diren Erakundeenak direnean ere bai, baldin eta bete nahi den lanpostuak bere dituen egitekoekin zuzenean lotuta dauden gaiei buruzkoak badira, iraupen-orduen arabera eta honako baremo hauek aintzat hartuta:

- Lizentziatura Euskal Filologian: puntu 1.
- Graduondoko ikasketak edo masterra, 200 ordu edo gehiagokoa: puntu 1 titulu bakoitzeko.
- Prestakuntza eta Hobekuntza ikastaroak:
 - 50 - 100 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu.
 - 100 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 0,75 puntu.
- Ofimatikako ikastaroengatik, puntu bat emango da, gehienez.

Zentro Ofizialek emandako ofimatikako ikastaroak egiteagatik, 2. oinarrian exijitu direnak izan ezik: 0,025 puntu ordu bakoitzeko.

‘IT Txartela’ (ofimatikako moduluak) egiaztagiriak egiaztatzeagatik, 2. oinarrian exijitu direnak izan ezik:

Oinarrizko modulua: 0,25 puntu.

Modulu aurreratua: 0,50 puntu.

2.3. Atzerriko hizkuntzak

Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, eta gehien jota **puntu 1** emanda, banaketa honen arabera:

- 0,10 puntu A2 edo B1 mailako ezagutza izanez gero, egiaztagiri ofizial bidez egiaztatzen bada.
- 0,20 puntu B2 mailako ezagutza izanez gero, egiaztagiri ofizial bidez egiaztatzen bada.
- 0,30 puntu C1 mailako ezagutza izanez gero, egiaztagiri ofizial bidez egiaztatzen bada.
- 0,50 C2 mailako ezagutza izanez gero, egiaztagiri ofizial bidez egiaztatzen bada.

Seigarrena.- Izendapena eta praktika aldia.

Praktiketako funtzionario izendatuko du presidenteak Epaimahai Kalifikatzaileak proposatzen duen izangaia, oinarri orokorretan aipatuta dauden dokumentu guztiak ekarri ondoren.

Praktika aldiak 6 hilabeteko iraupena izango du gehien jota.

Praktika aldia amaitzen denean, praktika aldiari buruzko azken txostena egingo du dagokion arduradunak edo, hala izatera, arduradunek, eta eskubide dituen alegazioak edo ohartarazpenak egin ahal izango ditu.

Hautatua denak praktika aldia gainditu ezean, izendapenerako eskubide guztiak galduko ditu, eta horretarako ziodun erabakia hartu beharko du Ametx erakunde autonomoaren Artezkaritza Batzordeak.

Zazpigarrena.-Aldi baterako lan-poltsa.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaien zerrenda osatuko da, Euskara Teknikari lanpostuan ordezkapenean egiteko erabili ahal izateko.

I. ERANSKINA:

GAI OROKORRAK

1. gaia - Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio nagusiak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia - Botereak 1978ko konstituzioan. Legegintza-boterea. Botere judiziala. Botere betearazlea.
3. gaia – Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia Erkidegoak.
4. gaia – Euskadiko Autonomia Estatutua. Euskadiren eskumenak.
5. gaia - Azaroaren 25eko 27/1983 LEGEA, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardutze-Erakundeen Arteko Harreman"ei buruzkoa.
6. gaia - 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, [Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa](#). Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea. Eskubideak eta betebeharrak.
7. gaia – Udal organoak. Alkatea, alkateordeak, Osoko Bilkura eta Tokiko Gobernu Batzarra.
8. gaia - Udalerria. Elementuen definizioa. Udalerrien sorrera eta ezabaketa, udal-mugapeen aldaketa. Udal-biztanleria. Biztanleen errolda. Udalaren eskumenak.
9. gaia - Herri Administrazioaren Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legea. Administrazio-egintza: kontzeptua eta motak. Betekizunak. Administrazio-egintzen eragingarritasuna. Ebatzi beharra eta administrazioaren isiltasuna.
10. gaia - Herri Administrazioaren Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legea. Administrazio-prozedura: prozeduraren erregulazioa, printzipioak eta faseak.
11. gaia - Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legea. Administrazioaren kontratuak. Kontratatzeko prozedurak.
12. gaia - Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legea. Obretarako eta hornidurarako kontratuak.
13. gaia – Toki erakundeen ondasunak. Kontzeptua eta sailkapena. Ondasunen erabilera eta aprobetxamendua. Besterentzea.
14. gaia – Toki Erakundeen zerbitzuak. Kudeaketa zuzena eta zeharkako kudeaketa: kontzeptua eta erak.
15. gaia – Zehapen-prozedura. Iradokitze-printzipioak eta izapideak.
16. gaia – Herri Administrazioen eta bertako agintarien eta zerbitzugintzan dihardutenen erantzukizuna.
17. gaia - Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, laneko arriskuei aurrea hartzearena. Abenduaren 12ko 54/2003 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-esparrua aldatzen duena.
18. gaia – Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Norberaren Datuen Babesari buruzkoa.

GAI ESPEZIFIKOAK

- 19.- Amorebieta-Etxanoko euskararen egoera eta garapena: ezagutza, erabilera eta motibazioa.(2001)
- 20.- Euskararen egoera Amorebieta-Etxanon eta Eskualdean.
- 21.- Amorebieta-Etxanoko bizitza sozialean eragiten duten erakunde eta eragile nagusiak.
- 22.- Amorebieta-Etxanoko euskararen egoera eta garapena: irakaskuntza, merkataritza, elkarteak, udal administrazioa.
- 23.- Amorebieta-Etxanoko errealitate sozio - kulturala.
- 24.- Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan.
- 25.- Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko.
- 26.- Hizkuntza Plangintza: Joshua Fishman-en eredia.
- 27.- Hizkuntza Plangintza: Mackey-ren eredia.
- 28.- Hizkuntza Plangintza: Jose María Sanchez Carrión,«Txepetx»en eredia.
- 29.- Bizitasun etnolinguistikoa: R. Bourhisen eredia.
- 30.- Euskararen kalitatea: Hausnarketak eta lan- ildoak
- 31.- Euskalgintzaren nondik norakoak.
- 32.- Hizkuntza plangintza udalerrri mailan.
- 33.- Administrazioaren hizkuntza normalizazioa: Plangintza. Emaizak eta balorazioa.
- 34.- Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak.
- 35.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 175/2001 Foru Dekretua, azaroaren 20koa, “Alkarbide” Bizkaiko Toki Erakundeen Euskara Zerbitzuen bilgunea eratu eta haren jardunbideari buruzkoa Araudia onetsi duena.
- 36.- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa(azaroaren7ko 16/1997 Legeak ekarritako aldaketekin. II. Idazpurua (Funtzio Publikoaren egitura eta antolaketa) .
- 37.- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena: I, II eta III. Atalburuak.
- 38.- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena: IV, V ,VI, eta VII Atalburuak eta Azken zatia.
- 39.- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.
- 40.- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena. V. Titulua: Hizkuntza-Normalizazioa.
- 41.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena: helburu estrategikoak.
- 42.- 64/2008 DEKRETUA, apirilaren 8koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzea.
- 43.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapena eta aintzatespena hautaketa prozesuetan eta lanpostuen hornikuntzan.
- 44.- Baliokidetzak eta salbuespen-araubidea euskal herri administrazioetan hizkuntza eskakizunen egiaztapenean.

- 45.- Erabilera planen eduki orokorrak. Erabilera planen helburuak eta normalizaziorako jarduketa orokorrak. Erabilera plana lortzeko faseak. Erabilera-planetan murgilduta dauden eragileen partaidetza eta motibazioa.
- 46.- Euskararen Erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Normalizatzeko Planaren Balantzea. 2003-2007 epealdia.
- 47.- Euskararen Erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Normalizatzeko Plana: IV. plangintzaldia (2008-2012).
- 48.- Hizkuntza eskakizunak Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta dauden Herri Administrazioetako lanpostuak hornitzeko eta lanpostuan jarduteko.
- 49.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioiko langileen hizkuntza-prestakuntza. Helburuak, irizpideak eta antolaketa.
- 50.- Lehentasunezko ildoak XXI mende hasierako hizkuntza politikarentzat (Euskararen aholku batzordea).
- 51.- Euskara suspertzeko ekimenak: unibertsitatea, merkataritza, hiritarren elkarteak. Familiarena lorreko transmisio-kanpainak.
- 52.- Euskararen erabilera normalizatzeko planak lan-munduan.
- 53.- Elebitasuna. Elebitasun mailak eta elebitasunaren kontzeptuak. Gizarte elebidunak: Gizarte eta politika faktoreak, hizkuntza eta kultura faktoreak. Familia elebidunak.
- 54.- Hizkuntzen arteko harremanak. Hizkuntza-gatazka. Hizkuntza-minorizazioa. Hizkuntzen bereganatzea. Hizkuntza-normalizazioa.
- 55.- Hizkuntza-plangintza: Prozesuak, helburuak, bitartekoak, lehentasunak, ekintza-planak, ebaluaketa eta kontrola.
- 56.- Euskararen normalizazioa eta administrazio-hizkuntza: beharrianak, terminologia-arazoak.
- 57.- BIKAIN Euskararen kalitate ziurtagiria.
- 58.- Soziolinguistika mapa: hizkuntza-kompetentzien analisia, erabileraren analisia, interesak eta jarrerak euskararekiko, familia bidezko transmisioa.
- 59.- IV. Mapa soziolinguistikoa (2006): Bildutako datuetatik ateratako ondorioak.
- 60.- Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua.